IRAGARKIAK

Obra, zerbitzu eta horniduren enkanteak eta lehiaketak

EUSKAL TRENBIDE SAREA

1529

IRAGARKIA, Euskal Trenbide Sarearen egoitza berria Bilbon, Albia eraikuntzaren 14. eta 15. solairuetan, egokitzeko lanen bigarren fasearen lizitazioa argitara emateko dena.

1.– Entitate esleitzailea.

a) Erakundea: Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoa.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Nagusia.

c) Telefonoa: 94 657 26 00.

d) Faxa: 94 657 26 01.

2.– Kontratuaren ezaugarriak.

a) Kontratu-mota: obrak.

b) Helburua: Euskal Trenbide Sarearen egoitza berria Bilbon, Albia eraikuntzaren 14. eta 15. solairuetan, egokitzeko lanen bigarren fasea.

c) Gauzatzeko/entregatzeko lekua: Bilbao.

d) Gauzatzeko/entregatzeko epea: 3 hilabete.

e) Loteak: ez.

3.– Izapideak, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapideak: presakoak.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko era: eskaintza ekonomikorik onena, zenbait balioespen-irizpideren arabera.

4.– Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: lizitaziorako gehieneko zenbatekoa.

Lehiaketaren gehieneko zenbatekoa: milioi bat, bostehun eta laurogeita sei mila, hirurehun eta berrogeita hamalau euro (1.586.354), BEZik gabe.

5.– Fidantzak: baldintza zehatzen pleguan ezarritakoak.

6.– Agiriak eta argibideak.

a) Helbidea: Idazkaritza Nagusia.

b) Kalea: Konpostelako Donejakue kalea 12-5, 48003 Bilbao.

c) Telefonoa: 94 657 26 00.

d) Faxa: 94 657 26 01.

e) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: 2012ko apirilaren 10a.

7.– Kontratistaren betebeharrak: baldintza zehatzen pleguan ezarritakoak.

8.– Eskaintzak aurkeztea.

a) Aurkezteko azken eguna: 2012ko apirilaren 13a, 12:00ak.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: baldintza zehatzen pleguan ezarritakoak.

c) Aurkezteko lekua: Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoa, Idazkaritza Nagusia, Konpostelako Donejakue kalea 12-5, 48003 Bilbao.

d) Lizitatzaileak zenbat denbora eutsi behar dion bere eskaintzari: 3 hilabete.

e) Aldaerak: ez.

9.– Bestelako argibideak:

Baldintza tekniko zehatzen pleguan eta baldintza zehatzen pleguan zehaztutakoak.

10.– Iragarki-gastuak: lehiaketaren esleipendunak ordaindu beharko ditu.

Bilbao, 2012ko martxoaren 15a.

Idazkari nagusia,
ANTONIO AIZ SALAZAR.